

## OLEAGA JAUNARENA:

¿Zek batu gaitu gaur antzoki andi, zabal, eder, onetan?,  
¿zer da ta zertako jaialdi ónen bikaina?

Euskotar-euskaldun bateri eskinitako biotz-biotzetiko gorazarre, goraltza, sutsu, begitartetsua.

Mundua mundu danetik, beti ta edonon, erri guzti-guztiak alegindu dira euren seme argi, jakintsu, bulartsu, ospatsuak, gorraldu gurean. ¿Zelan ez, ba, ainbeste ta ainbeste erritar garai izan dauan Euskalerrriak be, onelako yardunean ekin eta eragon?

Resurrekzion Maria Azkue jauna dogu gaur gure txera ta gure maitetasuna daroazan erritar goragarri ori, ta izan be aitatu leikezanen beste guztien artean ez txikiena ta apalena, bestela, euretariko edozeñen bastekoa eta asko ta asko baño be garaiagoa ta nabarmenagoa.

\* \* \*

¿Nor zan Azkue yaun andi, bikain, ori?

¿Azaldu beárrrik ete-dago, gaurkoz, egungoz, batez be Euskalerrrian, Azkue'ren nortasuna? ¿Euskotar-euskaldunik ete-dago Azkue jauna nor zan eta zer zan ezagututen eztabenik? Eta baten-bat-edo egon balitz be, egunotan zabaldu diran iragarkiak eta egunerokoetan idatzi diran irakurgaiak ez ete-dabe guztien ezaguerara erakarri Azkue zanaren inguru-mari osoak?

Beraz, orain gai onezaz ekitea alperrikotzat izango ete-danen bildur naz; baño nire gaurko itzaldiari gai ori ezarri dautse eta gai orreri ekin bear izango dautsat. Eta ekin be, labur-laburto, egitamuak onantxe diño-ta, ganera nire itzaldi latz eta gazbako au baño, gero emen egingo diran kanta, soñu ta eresaldiak entzuteko gogoatsuago egongo zareela deritzadalako. Aurrera ba.

Bizkaiko itsas-ertzeko, baster txukunenetariko baten dagon Lekeitio uri politan, 1864' garren urtean jayo zan gure Azkue jauna. Gurasoak, Eusebio Maria Azkue, euskaltzalea, ta Natibitate Aberasturi etxeko-andere maratsa.

Ikaskizunak, lenengo Lekeitio bere jayoterrian, gero Bilbaon. Geroago, abadetzea asi ebanean, Vituri ta Salamankan.

Abadetzara eldu ta gazte-gastetatik ementxe, Bilbon, bizi izan zan beti, bere eriotzararte, Euskalerrri guztian erririk-erri, euskal berba edo itz, esakera eta oitura beriziak eta egokiak batzen, ala atzerriko toki askotan, Prantzian, Alemanian, Ingalaterran eta abar, liburutegi ta gutun zar piloak arakaturik, euskal-gai sako-nak ikasten, nozean bein, ala obeto esateko, sarri-sarri, ibiltan zan arren.

Domingo Agirre bere adizkide ta abade lagun, "Auñemendiko-lorea", "Kresala", "Garoa" ta beste irakurkizun ederren egileak, "Garoa" deritzan gertirudi bardin-bagean onantxe agertzen eban Joanes, Aloña mendiko artzain zarra: "¡Ura zan gizona, ura! Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel. Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean; sendoak zeuden oraindik artzai zarraren besa zaintsuak, txit azkarrak bere oñak, zindoak bere bular auspoak".

Ba, beste orrenbeste esan eukean Azkueren gorpu, soin, iza-kerari buruz. Andia luzez, zabala, lerdana, sendoa, mardoa, txai-roa, azal margo gorrizkaduna, osasuntsua, zan izan be Azkue nik ezagutu nebanean eta beragaz autu ta artu-emonetan asi nintzanean. Osasuntsua esan dot irudiala eta benetan zan osasunduna. Ona emen beronen adibide bat: larogetaz urteak eukazan eta geroago aitatuiko dodan iztegi erdal-euskeragiñen zortzi edo amar urte baziran batzen ginala bera ta ni egunero, eguntxo batxo bat be utsegin barik. Bein, baina, eztakit zer zela-ta, oitutako orduan etxatan agertu D. Resu (onan dei egiten ebuatsen bere adiskideak); kanpora joan bearren bat-ala, izango ebalakoan negoan eta or urrengo egunean non datorren txairo-txairo. Aurreguneko piperraren zioa itandu neutzanean (entzueleok, guztiok ezpada, askok bai beintzat, bai edo-dakizue euskalerrriko toki batzuetan erderazko "calva" edo eskolara utsegiteari "sasi-eskola" ta beste batzuetan "piper egin" esaten dautsela) alditxar bat izan ebala erantzun eustan eta bere etse-lagunak kalera urtetan itxi ezeutsela-ta, etxean lotu bearra izan ebala. Au entzunik otu yatan itandutea, zenbat bidar edo noz geisorik egona ete-zan eta erantzun eustan, ordurarte iñoz etzala gaisotasunez etsean loturik egon, eta bere bizitza guztian, atzerrian egindako egonal-

dieta Eleiza Katolikorik bagako errien baten izan ezik, ez ebalagomuta meza emon barik egun battxo be geratu zanik.

\* \* \*

Gorpu, soin, izakeraz Azkue zelakoa zan ikusi dogu. Jo daigun orain Azkueren gogo izakerara.

Adimen argia, bizia, zolia, zan berea. Edozein gai zala, laster eta sakon aztertuten eban eta gunera eltzen zan, atzenengo ondorenak atararik.

Gomutamena, oroimena, arrigarria, ezin sinistu leikenalan-goia eukan. Len aitaturiko iztegi lanean ginarduala, sarri agertzen yakuzan berba edo itz gitxi erabiliak, gitxi ezagutuak. Berak, baña, guzti-guztiak gogoratzen ebazan, ez bakarrik berbak eurak, ta bakotxaren ikurpen edo esan-gurea, baita, zein erritan, eta, geiago zana, non eta nori entzuna zan berba ori, bere.

Naimena, guramena, sendoa, gogorra eukan; setatsua bai, baña ez setatia; eztabaidako gaia ganoraz ta egoki azaltzen yakonean, bekian bere burua makurtuten eta bere autu-lagunen aburura, eritxira, menderatzen, menpetzen. Norbaitzuk, bere soin andi-zerden-zabala ikusirik, arroa ete-zanen susmoz egon zitezkezan; baña etzan olakorik; bestela, oso apala ta leuna. Ona, beronen adibide bat. Atzerrietara eginiko ibiltaldi edo txangoetan ikasi-ta, emeko abadeak jantzen eztaben garrikoa erabilteko oiturrea artu eban. Bein baña norbaitek oar-erazo eutsan garriko ori arrokeri ezaugarritzat artu zitekeala; eta, berak niri kontau eustanez, ori entzun ebanekoxe, bereala, garrikoa kendu ta arean barik ibili zan atxina eriotzararte.

Naimen sendoduna zan arren, bere artu-emonetan etzan Azkue, baña, gogorra ta garratza; bestela otzana ta mazala zan. Biotzez, oso biguna, larreragifiko errukiorra, eskuzabala, edonori ta edonoz ta edozetan laguntzeko prest, gertu, egoana; etzan bere ondotik eskekorik igaroko, bere ukarra, bere eskupekotxua, artu barik; etxakon elduko inor bearrizan ala estutasun baten aurkitzen zala esanik, bere emonkortasunaren bila, soroski zabalaz jaubetu baga; eta ori Azkue jauna aberatza etzala, irabaste ugariak ezeukazala, ta sarri-sarri, berak sorosia, olakoetan et gitxitan jazo oi danez, eskertaiztoko, eskertzarreko, izaten yakozala ikusita ta ikasita eukan arren.

Aitatutako guramen gogorrak ezeutsan Azkueri aldarte onekoa izatea eragotzi. Beti-beti egoan alai eta pozik; naigaberik inoz sortzen bayakon ala asarre ziorik elduarren, (¿nor da mundu onetan, naigabe ta asarrebakorik?) laster baketzen zan, ibitzen

zan; eta an zan gure Azkue maite ta maitekor ta maitegarria berak ugari ekizan, ta polito esaten ebazan jazoera, ipuñ eta izkirimiriak, bere entzuleen pozgarizat, edestuten.

\* \* \*

Guzti onen ganera, beukan Azkuek beste zertzelada edo zelatasun nabarmen bat. Bearzaletasuna, lantzaletasuna. Onetan gitxi-gitxilangoa izan zan gure D. Resu.

Goizean-goiz yagi, bizarra kendu, eleizara joan meza emotera, eta bereala bere lantokira, Euskaltzaindiaren etsera, barausi bertan kopautxo bat, eguneroko albistariari begiralditxo arin bat ezarri eta an zan Azkue goizeko bederatzietarako mai aurean jazarrita lanean ekin eta ekin. Onako liburua aztertzen, alako itzak lerrotuten, bestelako soñuak edo eresiak asmetan, karta-idazkiak (ugari, gizon jakintsu askorenak eta toki gustietakoak ziran eurak) erantzuten, aditz-irabiaketa ta aldaketak arteztuten, iztegi-geigarriak gertuten, eta abar; gelditu barik joakozan orduak egurdiko ordubatararte. Bazkaldu, gero abaro edo biao laburtxo-baten ondoren barrero langelara ta an gauko zortziterdiak arte, etxeratu, apal-izki bat artu ta lotara. Auxe zan Azkueren bizi modua, eta au gaur, biar, etzi, egun baten eta urrengoan, aste batean, geroagokoan, ila bete, urte bat, bi, sei, amar, ogei... Atsedean baga, aspertzaka, beti gogotsu, adoretzu, kementsu, biaramonean, asiriko ta eskuan erabilitako lana, bearra, jarraitzeko asmoz. ¡Langile-eredua Azkue jauna! ¡Zenbait *Medalla del Trabajo* edo langile-sarizat asmauriko deduzko ezaugarri ori, emon etc-yake gure erritar zintzo onek beste lan egin eztabeen gizonai!...

\* \* \*

Esandako zertzelada edo zelatasunaz inguraturik, ez da arri-zekoa Azkue jauna edonoz, edozetan eta non-nai gailen ta nabarmen urtetea, urten ebanez, oso ezagun, ospetsu ta aintzakotzat izatera eldu zan bezela. Bere bizkortasuna guztiara zabaldu zan ta guztian goi, bizi, ta garailari.

\* \* \*

Ereslari edo musikalari bikainenetarikoa, "Pasa de chombos", "Sasi eskola" ta "Vizcaitik Bizkaira" Zarzuela edo eresantzerti politak eginik, "Ortzuri" ta "Urlo" opera ederrak atondurik, saritutako "Cancionero popular vasco" bildurik, ta beste

ereski asko argitaraturik ("Katalintxo" ta "Nostalgia", zortzi-koak, "Ahusky", "Seaska utsa", abestiak, "Agur Maria", "Maia-tzeko lorak", "KruX Fidelis", "Arimen egunerako", "Kurutze bidea", "Mariaren alabentzat", "Ave Maris Stela", "Recordare", "Jesusen Biotzari oiuaK", "Andra Mariari oiuaK", "Done Joseperi bederatziaurrena", "Errosarioa euskeraz", "Jesusen Biotzari letania bi", Eliz- abestiak, eta abar eta abar). Euskaleresiari buruz be emon ebazan itzaldi entsutetsu batzuk.

Etxagokit niri eres-egintza onek aztertzea, ala zeaztutea, ba-kotxaren txostena ala iruskiña egitea, ori nire lagun Arrue eus-kaltzainkideak datorren domekarako daukan lanari dagoko-ta. Baina bai esan nei, Azkueren irudia zeatz eta osoan agertu dedin, (itzaldi onen gaia au da-ta), bere eresi zaletasunak bere bizi guz-tian iraun ebala, larogetakaz urteak ebazala be, beste lanen atse-denez, sarri lan gelan eukan piano aurrean jezarrita, joten eta abestuten iñarduan-eta.

Teatro edo antzertia bere ukutu eban. Len aitaturiko ereski-ñaz ganera "Aitaren bildur" umeentzat gerluriko antzerkizun txukuna, "Eguzkia nora", bi ataletan, eta iru ataleko "Gainza-baleko eiztarria" izenaz saritutako beste antzerki bat be, argita-ratu ebazan-eta.

\* \* \*

Esan danez, guztian gailen ta nabarmen bazan be, Azkue jaunari aipamenik andiena ezarri eutsana euskalaritza izan zan zalantza bage. Azkue euskalari bardinbakoa izan zan, lanez eta balioz; ezta errikiderik ez eta atzerritarrik Azkuek bestean eus-kera-ikasketari lotua izan danik eta bere euskal-lanen gora-gokorik.

Jatorriz etorkon Azkueri euskalzaletasuna ta euskalaritasu-na. Bere aita Eusebio Maria be orretan gizona izan zan, euskera-lanetan sartua zan-eta, ederto ta bikain izan be. "Parnasorako bidea" izenaz argitaratu zan beronek eginiko olerki edo bertso eder piloa.

Gazte gaztetanik eragoion Azkuek euskal-gaietan eta euskal-lanetan.

Bizkaiko Aldundiak irasi eban Euskera-ikastola bat Instituto zarrean eta irakaslea aututeko batzaldi edo deiak iragarri eba-zan. Lau irakasle-gai aurkeztu ziran, euren artean (orduaz eus-kaltzale zan, geroagoan euskal arerio izatera jo ba eban be) Migel Unamuno gure erritarra. Eta guztien ganetik Azkue garaile, aukeratu eban ta Azkue geratu zan irakasle, irakaskintza orrek gure egunotarte, ointsurengo gerratearte, iraun eban artean. Ego-

ki ez ete- da Euskeraikastola edo irakaskintza ori aitatu dogun ezkerro, galdu zalako, amaitu zalako, gure tamala agertzea eta dagokonari eskatzea barrero irasi daitela? Salamankako Irakas- tetxe nagosi ta ospetsuan Katedra Larramendi izenaz euskalikas- tola edo irakaskintzea ba-dago ¿zegaitik ez emen, Bilbon, beste bat, Katedra Azkue izenaz? ¡Ai, olan balitz!... ¡izango alda!...

Irakasle jarri zanean, bere irakaskintzea sendatu nairik edo. Euskal-izkindea edo Gramatikea idatzi eban. Lan ori etzan izan bere gogoko (bere gaztearoko pekatua zala esaten eban berak) eta gerotxoagoan "Método práctico para aprender el euskera biz- caino y gipuzcoano", atara eban.

Argitaratu ebazan laster, "Euskaltzale" ta "Ibaizabal" eus- kalasteroko txukunak, idatzi ebazan "Txiristadak" ta "Bein da betiko" liburutxo pozgarriak, "Prontuario de la lengua vasca", "Diccionario de bolsillo vasco-castellano y castellano-vasco". Urteak aurrera, euskeraz eta erderaz "Ardi Gadua", gertirudi oso polita, euskera izkuntzearen edertasun guztiaz ornitua.

Euskal oiturak be bere arretapean arturik, "Euskalerraren yakintza" edo Eusko folklore izenaz berein batu ebazan eta lau liburu andietan argitaratu.

Izkindeari, Gamaticari, buruz, (au zan bere zaletasunik an- diena) len aitaturikoen ganera, idatzi ta argitaratu ebazan "Mor- fología" (liburu eder-ederra, euskera sakon-sakon ikasteko ta berbetean erabili oi doguzan utsak eta oker esanak zuzentzeko ikaspiderik onena eta egokiena) ta "Gipuzkera osotua", beronen bidez, gipuzkerea, beronen utsak bete ta ederturik, euskera bata- sunerako gai egiteko gogoz. Azkenengoz bere atzenengo urteetan gertu eban "El vascuence y varias lenguas cultas, Estudio com- parativo", Bizkai-Aldundiko Junta de Cultura-k 1949 garren urtean argitaratutako lan polita.

Eta gertuta bere ba eukan, eta argitaratutako asmoz eta naiaz, gurari ori bete al izan ezaban arren, "Latsibi" gertirudi txukuna, laster irakurri al izango dozuena, Euskaltzaindiak argi- taratzea erabagita dauko-ta, orren gertakizunetan dabilan ezkerro.

Aitatuko Azkueren lanetarik badagoz batzud eregin eta ga- rrantzi andikoak. Esate baterako, "Cancionero popular vasco" ta "Euskalerraren yakintza". Baña askozaz guztien ganetik dago bere beste lan bat. Euskal-erdal iztegia. Sinistu ezina dirudi gizon bakar batek, alako lana egin leikeala Azkuek egin ebanez. Jaki- turi andi-andia bear zan orretarako; ganera, itz eta esakera ba- tzen erririk-erri ta etserik-etse andik, ortik, emetik, Euskalerrri guzti-guztian ibili bear asko, euskeraz gizaldietan idatziriko li- buru gustiak zeaztu ta aztertu, ta guzti orretako aldi luze-luzea,

urteak eta urteak bear ziran. Baña Azkue jaunak jakituri bardinbakodun ganera, kemen eta adore bardinbakoduna be bazan-eta, langile purrukatua be bai, eta ekin eta ekin amaitu al izan eban lan ikaragarri ori.

Ainbeste ta ainbeste euskera lan eder egile zan ezkeru, 1918'an. Oñatiko Eusko-Ikaskuntzaren batzar nagosian, Euskalerriko lau Aldundien asmoz, Euskaltzaindia sortu zanean, Euskaltzainetarikoa bat bera izentau eben. Eta gero Euskaltzaindia eratu edo atondu zanean, berari ezarri eutzien geroago bere eriotzararteño eroan eban Euskaltzainburugoa.

Euskaltzain zala eta euskaltzainburugoa bere gain eroan ebazala, jamaika lan eder gertu ebazan! Astirik eztaukot orain eurok aitatuteko: "Euskera", Euskaltzaindiaren aldirokoan argitaratuta dagoz eta ikusi gura dabezanak an aurkitu leikez, oso pozgarri yakozala.

Olakoa zan Azkue euskalaria: ta olakoa zalako, 1928'an Españako agintariak "Real Academia de la Lengua Española" eritxon Izkuntza-Bazkunan, Españan erabiliak diran berbeta edo izkuntza guztien ordelariai sarrera emon eutsenean, bera, Urkijo euskaltzainkide lagun ebala, izan zan bat. Parisko "Société Linguistique" ko bere izan zan eta San Petersburgoko Jakintza-Bazkunekoa bere bai.

\* \* \*

Azkue etzan, baña, ereslari ta euskalari bikaña bakarrik. Abadea bere bazan, eta Abadea be, ez edonor langoa, beste gai areetan bezela, gailen ta nabarmena baño. Sinismen sendo, bizi, sakonduna, otoiżetan oneraspen andiduna, Kristinauen arimen arduratsu.

Ona heronen ezaugarritxo bat. Antxinatik, Bilbo, berbetaz, erri erdalduna da. Baña Bilbon euskaldun ugariak bizi dira; urte batzuk dirala egin zan padroi baten, amar mila baño geiago ziran euskera ekiela ezarri ebenak; eta etzirean gitxi izango, euskera jakin arren, onezaz ezer esan ezebenak. Ziur-ziur esan leike bilbotar edo hilboko euskaldun orreen artean artean asko, geienak bear bada, euskera jakin arren, erderaz be bekiela; baña aren artean etziran gitxi izango euskaldun utsak ala erdera gitxidunak be. Eta au gogoraturik, eta Pilboko eleizetan euskerazko berbeta edo semoirik egiten etzala eta olan Jaungoikozko irakaspen harik euskaldunok geratu bear ebela, otu yakon irakas-kintza ori bere gain artzea, eta an geunkan gure Azkue zintzoa

domekaro, San Nikoasen eleizean, goizeko bederatzietako mezan, bitarte sartu yakazan zoztor eta eragozpenak kendu-ta, euskeraz sermogiñen. Dakidanez, orain bere, San Antonen eleizan, Parroko gurgarriaren arduraz eta bere gain, beste ainbeste egiten ei -da; gure eskerrak beioakoz.

Azkueren jaungoikozko ardurearen beste ezaugarriak, len aitaturiko eleiz-eresi ugariak be badira. Eta bardin, Jesusen "Biotzaren ila", "Lekeitioko Andra Mariari bederatziturrena", "Apaiz ostegunetarako elizkizun ta otoitzak" eta beste gomuta eztodazan lan eder batzuk.

Orra or, arin-arin esan-eta bada be, Azkueren lan bardin-bagea.

Len esan dot eta orain be barrero diñot etxagokidala niri gaur lan ori aztertu ta erizpean artzea. Baña bai egoki ta bear-izanekeo aitatztea, Azkue nor zan, zetara eldu zan, et zenbaterañon igon eban ondo ikusi ta jakiteko.

\* \* \*

Estakit Azkue berak asmaua zan ala norbaitegandik artua, baña bai berari sarri entzunikoa zala, esakera au: Ni enaz agurea, gazte urtetsua baño. Eta alantxe zan, izan be. Larogei urteak gorakoa zan arren ezin deitu eukion agurea, Azkue lango gizon morrosko lerden bizkorrari.

Baña urteak urte dira beti, eta berandu bazan be leporatu yakozan, burua makaldu, bizkarra makurtu, sorbaldak okertu, begiak lausotu, erazoten eutsiela. Orraitiño, oraindiño bizeitza luzatuko yakolakoan egon ginekezan, guztiok dakizuen a yazo ezpayakon. Euskaltzainditegitik here etserantza, eguneko lanak amaituta, iluntzean, joiala, bidea oker artuta-edo, erre kara yausi zan, eta laster atera eben arren, eta beste ilabete gitxi gora-bera ezer gertatu ezpailtzakion oizko zereginetan iñardu eban arren, 1949 garren semendiko 9'an Jaungoikoak dei egin-eta Bereganatu eban. Goyan bego.

\* \* \*

Asikeran esan dot, mundua-mundu danetik erri guztiak ale-gindu direala euren seme garai-ospetsuak, zelanbaiten goraldtu eta goersten eta Euskalerrriak bere, beste-ainbeste beti egin dauala.

Geuk bere gaur, dakusgun jai eder onen bidez, Azkue jaun andi ta nabarmena, onetsi ta goralduten dogu. Baña, ¿naikoa ete da jai au Azkue zan gizon gurenari zor yakon aintza betetako?



Ez beintzat. Euskalerrriak asko-ta-asko zor dautso Azkue jaunari ta zor ori ordaindu bearrean aurkitzen da. Edozein gizontxok, goragaritzat, kale baten izena dauko edo-ta bere gizairudia, estatua, gure begien aurrean. ¿Noz ikusiko eta dogu, Azkueren Lekeitio jayoterrian, eta batez be emen Bilbon, bere bizitza luzeko egote ta bizite-errian eta here euskal-lanen erri onetan, Azkue izenaz apaindutako plaza eder baten erdian, euskotar-euskaldun eredutzat, Azkue jaunaren gizairudi ederra?

*NAZARIO OLEAGA.*